

Bilduma Hirugarren gaia : Nola landu hizkuntzaren ezagupena (ahozkotik idatzira) ?

Taldeek ekarpena (2018eko erakasleen gogoetak)

Zikloko taldetxotan

Zer desmartxa segitzen dugu ?

Zoin muga eta nola egokitu ?

Zer jarduera/material beharrezkoak litzateke ?

Lehen zikloa :

Ipuinak lantzea baitezpadakoa da, antzetzuz adibidez (errepikatzen diren egiturak lantzeko) ; sortu daitezke ere, ahozkoan : Adibidez : erakasle batek abiatzen du ixtorio bat erranaldi batekin, haurrek segitzen dute. Eta idazten ditugu haurrek erranak.

Hiztegitxoak (irudiak + hitzak)

Olerkiak (gaiaren arabera)

Aurre irakurketa/idazkeran : frantsesez egiten diren gauzen parezkoak dira (letra, soinu eta silaben lana, grafien eta etiketen ezagutza)

Lan bat egiten ahal da, zertarako idazten dugun lantzeko (helburua argi ukaiteko) : zerbaitetara gomitatzeko, kasu egiteko bidean, errezetak idaztean (nork ekarri behar du zer ?), silaben entzumena (« a » bukerak nola kendu ?), Liburuaren ekarpenak ere landu daitezke :

Mugerreko adibidea : ostiral guziz, etxetik ekarri behar da liburu bat eta 15 mntuz, denek irakurriko dute, erakaslea eta laguntzailea barne.

Liburuak etxera eramane daitezke ere eskolatik.

Kasu : liburuak ongi hautatu behar dira, interesa eta zailtasuna aldetik.

Beharrezkoa den materiala :

- progresio bat fonologia eta idazketa lantzeko ama eskolan (MS-GS), lan talde bat sortuz ; adibidez access metodoa egokitua (euskaraz)
- partekatzeko molde bat/toki bat zikloka/sailka

Bigarren zikloa :

Desmartxa : edo ahozkoarekin hasiz (testua), edo hitz batzuekin hasiz.

Adibidez : Ipuina 3 astez /Ana eta gakotzak 3 astez

Muga hiztegi ahula izan daiteke.

Erritualak : galderak pausatuz ? « *Nork ditu... Nork du... Nor da... Nor dira...* »

Materiala : testo egokituak, soinu fitzak, afitzak, saio grabaketak, joko grabatuak,

Urtxintxaren ipuinak, Euskara 1, Ana eta Gakotzak, irakurgaiak 1 eta 2, liburu urdinak

Entzumena lantzeko : « antzerki ttipiak landu eta grabatu »

Beharrak : progresio bat muntatu bigarren zikloan : « euskara landu, ahoz eta idatziz »

Hirugarren zikloa :

Desmartxa : Ikas-en webguneko : 3. Zikloko programazioa (testuak, gramatika...)

Jaz egina izan den progrezioarekin lan egin (lan talde batek sortu duena), aktibitate proposamenekin.

Ahozkoa ipuinetatik landu daiteke, eta gramatika ere bai, testu inguru batean.

Diktaketak + hiztegi zerrendak balia daitezke.

Helburu bereziak eta proiektuak proposatu behar zaizkie idazkera motibatuzko :

- « Erran zaharren » konkurtso bat sortu daiteke
- « Haziak idazle » lehiaketan parte hartuz : idazkera lantzeko

Testu sorkuntzan ari gaitezke ere : zerbait kondatu lehenik (berdin grabatuz ?) eta gero elgarrekin eraikitzea errana izan dena

Komunikatzeko proiektu bat behar da. Behar zaio sentzu bat eman : norentzat idazten dugu ? Ahozkoa eta idatzizkoa lantzen dira.

Mugak hemen identifikatu ditugu :

- elebakarrak gelan sartzen direlarik, nola kudeatu taldea ?
- Ikasle kopurua haundia delarik ? taldetxoetan (3nazka) ezarriz hobe, denek hitza hartzen ahal dute